AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

1882

AGINDUA, 2014ko martxoaren 24koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Auzitegiko Medikuen Kidegoko lekualdatze-lehiaketarako deia egiten duena, Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundeko lanpostu generikoak betetzeko.

Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Legeko 531. artikuluak eta Justizia Administrazioko Funtzionarioen Sarbiderako, Lanpostu Hornikuntzarako eta Lanbide Sustapenerako Arautegia onartu zuen abenduaren 7ko 1451/2005 Errege Dekretuko 43tik 48ra arteko eta 51tik 53ra arteko artikuluek ezarritakoa betez, lekualdatze-lehiaketaren deialdia egiten da Auzitegiko Medikuen Kidegoko funtzionarioentzat, I. eranskinean azaltzen diren Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundeko lanpostu huts generikoak betetzeko. Hona hemen deialdiaren oinarriak:

EBAZTEN DUT:

Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundean hutsik dauden plazak (I. eranskina) lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzeko deialdia egitea, honako oinarri hauekin:

Lehenengoa.– Deialdiaren xedea.

Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundeko lanpostuen zerrendako lanpostu huts generikoak lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzea da deialdi honen helburua.

Deialdi honek, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoak eta Justizia Administrazioko Funtzionarioen Sarbiderako, Lanpostu Hornikuntzarako eta Lanbide Sustapenerako Arautegia onartu zuen abenduaren 7ko 1451/2005 Errege Dekretuak zehazki aurreikusten ez dituzten kontu guztietan funtzio publikoari buruzko legedi orokorra aplikatuko da.

Bigarrena.– Parte hartzeko eskakizunak eta baldintzak.

1.– Destinoa edozein lurralde-eremutan daukaten eta eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean deialdi honetan ezarritako baldintza orokorrak eta betekizunak betetzen dituzten Auzitegiko Medikuen Kidegoko karrerako funtzionarioek hartu dezakete parte lehiaketa honetan. Lehiaketaren behin betiko ebazpena eman arte jarraitu behar da baldintzak eta betekizunak betetzen.

2.– Lehiaketa honetan parte hartzeko, bi urte paseak izan behar dira auzitegiko medikuei behin betiko destinoa esleitu zien lekualdatze-lehiaketako deialdiaren ebazpena eman zenetik eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunera, edo, funtzionario sartu berrien kasuan, behin betiko destinoa esleitzeko ebazpena eman zenetik eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunera.

Urteak zenbatzeko, ebazpena eman zen urtea joko da egutegiko lehenengo urtetzat, ebazpenaren data kontuan hartu gabe. Bigarren urtea, berriz, egutegiko hurrengo urtea izango da.

Behin betiko destinorik ez duten funtzionarioek lehiaketetan nahitaez parte hartu behar dute indarrean dagoen araudiaren arabera, eta ez dute adierazitako denbora-muga bete beharko.

3.– Ezingo dute lehiaketan parte hartu:

a) Eginkizun-gabetze irmoa ezarrita dutenek, egoera horrek dirauen bitartean.

b) Interes partikularrarengatik borondatezko eszedentzian dauden auzitegiko medikuek, egoera horretan egoteko gutxieneko aldiak dirauen bitartean.

c) Nahitaezko lekualdatzearekin zigortuta daudenek. Zigorra ezarri zitzaien herrian destinoa lortzeko lehiaketan ezin izango dute parte hartu urte bat edo hiru pasatu arte, hutsegitea larria edo oso larria izan den kontuan hartuta, hurrenez hurren.

d) Aurreko lehiaketetan destinoa lortu arren esleitutako destinoa jabetzan hartu ez dutenek.

Hirugarrena.– Eska daitezkeen lanpostuak.

1.– I. eranskineko zerrendan azaltzen diren lanpostuak eskatu ahal izango dituzte parte-hartzaileek.

Lanpostu bakoitza hurrenkera-zenbakiaren bidez identifikatuko da.

2.– Lehiaketa honen ebazpenaren ondorioz hutsik geratzen diren lanpostu generikoak ere eskatu ahal izango dituzte. Lanpostu horiek erresulten zerrenda osatuko dute eta eskainitako lanpostu hutsei gehituko zaizkie, salbu eta lanpostuen zerrendak aldatzeko proiekturen bat dagoelako edo lantokiko langileak berriz antolatu behar direlako lanpostuak kendu nahi badira. Kasu horietan ez da erresultarik eskainiko kidego honentzat.

Erresulta bakoitza hurrenkera-zenbaki batekin identifikatuko da.

Eskatutako lanpostuak (I. eranskinekoak nahiz erresultak) deialdiko hurrenkera-zenbakiaren bidez identifikatu behar dira. Lantoki bereko lanpostu bat baino gehiago eskatu nahi izanez gero, lanpostu bakoitzaren hurrenkera-zenbakia adierazi beharko da.

Egon litezkeen eskatzaileak lehiaketaren ebazpenaren ondorioz geratzen diren erresultak eskatzeko eskubideaz baliatu daitezen, agindu hau argitaratzen denetik hasi eta eskaerak aurkezteko epeak dirauen bitartean, www.justizia.net web orrian ikusgai egongo da eskatu daitezkeen lanpostuen zerrenda, bakoitzaren hurrenkera-zenbakiarekin.

3.– Parte hartzen duten auzitegiko medikuek, eskabidean zehazten dituzten hurrenkera-zenbakiak lehiaketa honetarako argitaratu diren zenbakiekin –I. eranskinekoen zenbakiekin zein erresulten zenbakiekin– bat datozela egiaztatu beharko dute, kode okerrak jartzea saihesteko.

Lehiaketan parte hartzen duten auzitegiko medikuek, eskatzen dituzten deialdi-hurrenkerako zenbakiak eskainitako postuen izenarekin guztiz bat datozela egiaztatu beharko dute, eskabideak aurkezteko epea bukatu ondoren ez baita inolako aldaketarik onartuko egindako eskaeran, eta eskatutakoa esleituz gero ezin izango baitzaio uko egin esleitutako postuari.

4.– Salbuespen gisa, lanpostu huts gisa iragarritako plazaren bat kendu ahal izango da, hori egitera behartzen duen zirkunstantziaren bat gertatzen bada.

5.– Erregistro Zibileko Medikuen Kidegotik datozen auzitegiko medikuei dagokienez, Epaile eta magistratuen erretiro-adina ezartzen duen eta Auzitegiko Medikuen Kidegoko hainbat mediku integratzen dituen azaroaren 20ko 7/1992 Lege Organikoak ezarritakoa bete beharko da.

Laugarrena.– Eskabideak eta dokumentazioa aurkeztea.

1.– Deialdi honetan parte hartzeko, eskabideak Bulego Judizial eta Fiskaleko zuzendariari aurkeztu behar zaizkio, Gasteizko, Donostiako eta Bilboko EATko sarrera-erregistroan edo Eusko

Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Saileko erregistro orokorrean (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

2.– Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 38. artikuluan ezarritako eran ere bidal daitezke eskabideak.

Postetxeetan aurkezten direnak bi modutara bidali daitezke:

a) Posta arruntaren bitartez; kasu horretan, eskariak aurkezteko epea amaitu aurretik iritsi beharko dute Gasteizko, Donostiako edo Bilboko EATko erregistrora edo Eusko Jaurlaritzaren Herri Administrazio eta Justizia Sailaren erregistrora.

b) Posta ziurtatuz. Eskabideak gutun-azal irekien barruan aurkeztu beharko dira postetxean, postako langileak, bidali baino lehen, eguna eta zigilua jar diezaien. Lehiaketako parte-hartzaileek postetxeko zigilua duen eskabidea bidali beharko dute; eskabideak aurkezteko epea bukatutakoan, ez da baldintza hori betetzen ez duen eskabiderik onartuko, nahiz eta eskabidea postaz bidali eta gero egiaztatu ahal izan.

3.– Hautagaiek ebazpen honen II. eranskineko ereduaren arabera aurkeztuko dute eskabidea, deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta hamar egun naturaleko epean. Ezin bada ebazpena aldi berean argitaratu Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera kontatuko dira epeak.

4.– Lehiaketa honetan parte hartzen duen funtzionario bakoitzak eskabide bakar bat egingo du, nahiz eta transferitutako eskumenak dituzten autonomia-erkidegoetako lurraldean dauden lanpostuak eskatu, eta transferitze horren ondorioz, gobernu autonomoek egindako deialdietan ere lanpostu horiek azaldu.

Parte hartzeko eskaera bat baino gehiago aurkeztuz gero, azkena baino ez da kontuan hartuko.

5.– Eskabideak aurkezteko epea bukatu ondoren, parte-hartzaileek ezin izango dute egindako eskaria deuseztatu edo aldatu.

6.– Eskabideak aurkezteko aldia bukatu ondoren, egindako eskaera loteslea izango da eskatzailearentzat.

7.– Eskabidearekin batera, agiri hauek aurkeztu behar dira:

a) Funtzionarioari jabetzan betetako azken plaza esleitu zion ebazpenaren fotokopia.

b) Eszedentzian dagoen lehiakideak, eszedentzia hartzeko baimena eman zion ebazpenaren fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko du.

8.– Eskabidea jaso ondoren, azken destinoko organo eskudunak Auzitegiko Medikuen Kidegoan emandako zerbitzuen ziurtagiri original eguneratua emango du. Bertan, aldien banakapena zehaztuko da, hasiera-datatik (eguna, hilabetea, urtea) bukaera-datara arte (eguna, hilabetea, urtea). Ziurtagiria eskabideari erantsiko zaio.

Bestalde, hizkuntzengatik emandako puntuazioa adieraziko du langileen organo horrek eskabidearen goiburuan edo erantsitako orri batean. Halaber, funtzionarioak bere gaur egungo destinoan abenduaren 7ko 1451/2005 Errege Dekretuko 46. artikuluak ezartzen duen legezko denbora badaraman adieraziko du (Justizia Administrazioko Funtzionarioen Sarbiderako, Lanpostu Hornikuntzarako eta Lanbide Sustapenerako Arautegia onartu zuen dekretu horrek), baita arau horretako 43.2 artikuluan aurreikusitako egoeraren batean dagoen ere.

Bosgarrena.– Baldintzapeko eskaerak.

Udalerri, barruti judizial edo probintzia bererako iragartzen diren lanpostu hutsetarako interesa duten bi funtzionario badaude, eskaera baldintzatu ahal izango dute bi funtzionarioek udalerri, barruti judizial edo probintzia berean destinoa lortzen badute; kontrako kasuan, bi funtzionarioek egindako baldintzapeko eskaerak baliogabetzat hartuko dira. Baldintzapeko eskaera egiten duten funtzionarioek eskabideko C atalean zehaztu beharko dute hori eta, horrez gain, baldintzatzen duten pertsonaren izen-abizenak eta IFZ ere adierazi behar dituzte. Beste funtzionarioaren eskaeraren fotokopia bat ere erantsi beharko dute. Lehiakideetako batek C idatz-zatian ezer adierazten ez badu, bi eskabideak ezeztatu egingo dira.

Eskabideko C idatz-zatia betetzen bada, Justizia Administrazioko Funtzionarioen Sarbiderako, Lanpostu Hornikuntzarako eta Lanbide Sustapenerako Arautegia onartu zuen abenduaren 7ko 1451/2005 Errege Dekretuko 48.2 artikuluan aurreikusitako eskaera baldintzatua egiten dela ulertuko da.

Seigarrena.– Lehiaketaren baremazioa.

1.– Alegatutako eta egiaztatutako merezimenduak baloratzeko, eskabideak aurkezteko epearen amaiera-data hartuko da kontuan.

2.– Merezimenduak baremo honen arabera ebaluatuko dira:

A) Antzinatasuna, gehienez 60 puntu. Auzitegiko Medikuen Kidegoan titular gisa emandako zerbitzu- urte oso bakoitzeko, 2 puntu emango dira. Urtera iristen ez diren aldiak proportzionalki zenbatuko dira, honela: eguneko 0,00555556. Hilabeteak 30 egun dituela joko da.

B) Euskara jakitea:

a) 2. hizkuntza-eskakizuna: 4 puntu.

b) 3. hizkuntza-eskakizuna: 8 puntu.

c) 4. hizkuntza-eskakizuna: 12 puntu.

Adierazitako jakite-maila hori behar bezala egiaztatu beharko da aurkeztutako tituluaren eta titulu horri dagokion mailaren ziurtagiri ofizialaren edo homologazioaren bitartez, eta horiek eskabideak aurkezteko epearen barruan entregatu beharko dira.

Aurkezten diren dokumentuak, hizkuntzaren ezaguera hori egiaztatzen dutenak, behar bezala konpultsatutako fotokopiak izango dira, eta baldintza hori betetzen ez dutenak ez dira balioetsiko.

Zazpigarrena.– Lanpostuak esleitzea.

Lanpostuak esleitzeko lehentasun-hurrenkera deialdi honetako seigarren oinarrian ezarritako baremoen arabera lortzen den puntuazio osoak emango du.

Puntuazio osoan berdinketarik egonez gero –baita hizkuntza-ezagupenetan ere– lanpostua nori eman behar zaion erabakitzeko, kidegoan antzinatasun handiena nork duen hartuko da aintzat, eta hala eta guztiz ere berdinketa badago, kidego horretan sartzeko hautaketa-prozesuan lortutako hurrenkera-zenbakia hartuko da kontuan (hizkuntza barne).

Zortzigarrena.– Emandako destinoen izaera.

1.– Lehiaketa honen ebazpenaren ondoriozko lekualdatzeak borondatezkotzat hartuko dira Zerbitzuagatiko Kalte Ordainei buruzko maiatzaren 24ko 462/2002 Dekretuan aurreikusitako ondorioetarako, eta, hortaz, ez dute inolako kalte-ordainik kobratzeko eskubiderik emango.

2.– Lanpostuari ezingo zaio uko egin, Justizia Administrazioaren zerbitzuko langile funtzionarioen sarrerari, lanpostuak betetzeari eta lanbide-sustapenari buruzko erregelamenduaren 53. artikuluan araututakoaren arabera.

Bederatzigarrena.– Lehiaketaren ebazpena.

1.– Lehiaketa hau Justizia Ministerioak eta lehiaketarako deia egiten duen Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Sailak ebatziko dute, koordinazioan. Ebazpena emateko epea eskabideak aurkezteko epea bukatu eta hurrengo egunetik sei hilabetekoa izango da.

2.– Ebazpenean datu hauek azalduko dira: destinoa eman zaien interesdunen jatorrizko lanpostua eta herria, funtzionario horien egoera administratiboa (zerbitzu aktiboan ez baldin badaude), eta funtzionario bakoitzari esleitu zaion lanpostua.

Hamargarrena.– Uko egitea eta kargua hartzea.

1.– Kargua hartzeko hiru eguneko epea izango da, baldin eta ez bada funtzionarioa herriz aldatu behar. Abenduaren 7ko 1451/2005 Errege Dekretuak onartutako Justizia Administrazioaren zerbitzuko langile funtzionarioen sarrerari, lanpostuak betetzeari eta lanbide-sustapenari buruzko erregelamenduaren 52. artikuluan araututakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko beste herri batera aldatu behar bada, zortzi eguneko epea izango da, eta hogei egunekoa, autonomia-erkidegoz aldatu behar bada.

2.– Kargua hartzeko epea, berriz, uko egiten den egunaren biharamunetik hasiko da zenbatzen; horretarako hiru egun baliodun izango dira, lehiaketaren ebazpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

Hamaikagarrena.– Errekurtsoak.

Agindu honek administrazio-bideari bukaera ematen dio, eta, aurka egiteko, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa Arautzen duen Legearen arabera administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzien Gasteizko Epaitegian, agindua Estatuko Aldizkari Ofizialean edo Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabeteko epean. Bestela, argitaratu eta hurrengo egunetik hilabeteko epean aukerako berraztertzeko errekurtsoa jar dakioke Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeko 116. eta 117. artikuluek ezarritako moduan.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko martxoaren 24a.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,
JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO.

I. ERANSKINA

Hirugarren oinarriko 1. idatz-zatia aplikatuz eska daitezkeen I. eranskin honetako lanpostuak.

Hurrenkera-zk.	Izena	ATP	Herria	Lurraldea	Plaza hutsak	Erresultak	Hizkuntza	Lanpostua	Dotazioa	Hizkuntza-eskakizuna	Hizkuntza-berezitasunaren data
203	Auzitegiko Medikuntzako Institutua	Orotariko auzitegi-medikua	Vitoria-Gasteiz	Araba	1		Bai	240001	9	3	2015-01-31.
189	Auzitegi Medikuntzako Institutua	Orotariko auzitegi-medikua	Bilbo	Bizkaia	1		Bai	240001	18	3	2015-01-31.
195	Auzitegi Medikuntzako Institutua	Orotariko auzitegi-medikua	Bilbo	Bizkaia	1		Bai	240001	23	3	2020-01-31
196	Auzitegi Medikuntzako Institutua	Orotariko auzitegi-medikua	Bilbo	Bizkaia	1		Bai	240001	24	3	2020-01-31
197	Auzitegi Medikuntzako Institutua	Orotariko auzitegi-medikua	Donostia	Gipuzkoa	1		Bai	240001	3	3	2015-01-31.
198	Auzitegi Medikuntzako Institutua	Orotariko auzitegi-medikua	Donostia	Gipuzkoa	1		Bai	240001	4	3	2015-01-31.
199	Auzitegi Medikuntzako Institutua	Orotariko auzitegi-medikua	Donostia	Gipuzkoa	1		Bai	240001	5	3	2015-01-31.
201	Auzitegi Medikuntzako Institutua	Orotariko auzitegi-medikua	Donostia	Gipuzkoa	1		Bai	240001	7	3	2020-01-31
202	Auzitegi Medikuntzako Institutua	Orotariko auzitegi-medikua	Donostia	Gipuzkoa	1		Bai	240001	8	3	2020-01-31

II. ERANSKINA

Auzitegiko Medikuntzako Insitutuetako lanpostu generikoak betetzeko, Auzitegiko Medikuen Kidegoarentzat deitutako lekualdatze-lehiaketan parte hartzeko eskaera.

(Autonomia-erkidegoek betetzekoa)

Hizkuntzarengatik emandako puntuazioa:
1451/2005 Errege Dekretuko 46. artikuluak ezartzen duen legezko denbora ba al darama egungo destinoan? Bai: Ez:
1451/2005 Errege Dekretuko 43.2 a), b) edo c) artikuluetan aurreikusitako egoeretako batean al dago? Bai: Ez: Baiezkoa bada, azaldu zein: a), b) edo c).

(Interesdunak betetzekoa)

……, ...(e)ko .....ren ……..a

IFZ:	LEHENENGO ABIZENA:	BIGARREN ABIZENA	IZENA:
EGUNGO DESTINOA:			
EGUNGO KIDEGOA:	LANPOSTUAREN HELBIDEA EDO HELBIDE PERTSONALA: MUGIKORRA/FINKOA:		

Hizkuntzen araberako lehentasunak: daukazun mailaketa-ikastaro, eskakizun edo gradu altuena adierazi, parte hartzen duzun erkidegoaren esparruko laukitxoan a), b) edo c) jarriz, seigarren oinarriko 2 B atalean ezarritakoaren arabera.				**C: Eskaera baldintzatuak bakarrik**. Deialdiko 5. oinarriaz baliatzen bazara, zehaztu jarraian beste funtzionarioaren abizenak, izena eta IFZ:
	Euskal AEko esparrua		Valentziako AEko esparrua	
	Kataluniako AEko esparrua		Nafarroako FAEko esparrua	
	Galiziako AEko esparrua		Balear Uharteetako AEko esparrua	

EGOERA ADMINISTRATIBOA: dagokion laukitxoa markatu X batekin:	
	Jardunean Zerbitzu-eginkizunetan: Bai/Ez Behin-behineko adskripzioa: Bai / Ez Adierazi zein organotan zauden zerbitzu-eginkizunetan:
	Senitartekoak zaintzeko eszedentzian Adierazi egoera hori noiz hasi zen: urtea _____/ hila _____/ eguna ____
	Zerbitzu berezietan
	Borondatezko eszedentzia, sektore publikoan zerbitzua emateko
	Borond. eszed., interes partikularrengatik Adierazi egoera hori noiz hasi zen: urtea _____/ hila _____/ eguna ____
	Borond. eszed., familia elkartzeko Adierazi egoera hori noiz hasi zen: urtea _____/ hila _____/ eguna ____
	Eginkizun-gabetuta
	Behin-behingoz itzulita
	Langileen berrantolaketan

BALORAZIORAKO ALEGATUTAKO MEREZIMENDUAK ETA AURKEZTUTAKO DOKUMENTUAK:

Lehentasun-hurrenk. zk	Deialdiko hurrenk. zk.	Lehentasun-hurrenk. zk.	Deialdiko hurrenk. zk.	Lehentasun-hurrenk. zk	Deialdiko hurrenk. zk.	Lehentasun-hurrenk. zk	Deialdiko hurrenk. zk.	Lehentasun-hurrenk. zk	Deialdiko hurrenk. zk.
1		21		41		61		81	
2		22		42		62		82	
3		23		43		63		83	
4		24		44		64		84	
5		25		45		65		85	
6		26		46		66		86	
7		27		47		67		87	
8		28		48		68		88	
9		29		49		69		89	
10		30		50		70		90	
11		31		51		71		91	
12		32		52		72		92	
13		33		53		73		93	
14		34		54		74		94	
15		35		55		75		95	
16		36		56		76		96	
17		37		57		77		97	
18		38		58		78		98	
19		39		59		79		99	
20		40		60		80		100	

Sinadura:

JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIA
HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA
DONOSTIA KALEA 1
01010—VITORIA-GASTEIZ